

# KOLABORAZIOAK

Kepa SARASOLA / UPV-EHUko Informatika Fakultateko ikerkuntza-taldea

## Informatikatik hizkuntzara

*Talde interdisciplinarioak behar dira abentura honetan bakoitzaren hutsuneak elkarrekin betetzeko*

**D**UELA gutxi zenbait egun-  
karitan argitaratu zen «Metafisikatik zientzietara eta zientzietatik informatikara» izenburuko iritzi artikuluar buruz ohar batzuk egin nahi genituzke, kasu honetan ez informatikaraino heltzeko, baizik eta informatikaren mundutik daukagun ikuspuntua azaltzeko.

Aldez aurretik errekonozitu behar dugu artikulua haren mamia ez zela informatika, ezta hizkuntzak tratatzeko informatikaren ekarpena ere. Artikuluaren muina Lur eta Eusebio-ek entziklopedi munduan ihar-duteagatik jaso edo jasoko duten dirulaguntzen inguruko da. Kontu horretan ez gara sartuko, baina gai horri ekiterakoan, pasadaz bezala, informatika eta hizkuntzaren arteko loturei buruz esandakoek erantzuna merezi dutela uste dugu. Hona hemen oharrok:

1) «... edozeinek daki hiztegi batek edo entzilopedia batek oso erraz har dezakeela euskarri informatikoa: hartarako mila pezetako batzuk baizik ez dira behar. Horregatik Groliere CD-ROMean edo disko optikoan erabiltzen dela esateak ez du ezertxo adierazi nahi. Edozein hiztegiarekin egin daiteke hori epe labur batean» esaten da artikuluan. Ehun milako batzuk edo milioiak beharko lirateke pertsona batek testu guztia teklatu beharko balu. Egia da, gaur egun hori ez dela behar izaten inprimategi guztietan euskarri informatikoa erabiltzen baita. Baina hala ere, euskarri informatikoa testu huts bezala dagoen entzilopedia batek ez du inor liluratuko. Alde batetik, horrelako errepresentazio batean hitz-bilaketak errazagoak lirateke, gainera definizioetan dauden hitzen artean ere bila liteke. Baina bestetik, entziklopediatako hitz kopurua ikaragarri handia denez, konputagailu batentzat ere luzeegi suertatuko litzateke bilaketa horiek burutzeko denbora. Dena dela, informatikan beste errepresentazio bereziago batzuk asmatu izan dira tamaina erraldoiko informazioaren tratamendu egokia egin ahal izateko. Gaur egun aukera desberdinak daude: datu-base lexikalak, multimediak, hipertestuak, eta abar (deskribapen zehatzago bat nahi izanez gero ikus "Hiztegiak eta informatika" Elhuyar Zientzia eta Teknika 59. zenbakia. 1993ko Martxo). Entziklopedia bat horrelako modu batez eskaini ahal izateko azterketa, diseinu eta implementazio-

rako diru eta denbora dextente beharko lirateke, ez milako batzuk, ezta epe labur bat ere.

2) «...Egiten ez bada arrazoi simple batengatik da: CD-ROMetik edozeinek kopia baitezake». Benetan problema interesgarria da kopiarena. Ez da gutxiesteko kontua, baina ez dugu uste hori denik Britannica Entziklopedia CD-ROMean oraingo ez ikusteko arrazoi erabakiorra. Bestalde hortxe dugu Oxford English Dictionary ospetsua, bere 11 tomoetako edukia CD-ROM bakar batean aurkezten duela. Zenbait puntu aipatu behar da kopiatzeko erraztasunak direla eta: a) kopia paperezko entziklopedietan ere gertatzen da. Jakina da «gezurrezko» hitzak edo definizioak sartzen direla hiztegiaren beste hiztegi batean agertzen badira kopiaren frogaz bezala erabili ahal izateko. b) Gaur egun badago paperezko entzilopedia euskarri informatikora kopiatzeko modurik, scanner eta OCR programen bitartez esate baterako. Beraz... kontuz ibili! c) Entzilopedia «elektroniko» batetik testu zatiak kopiatzea erraza da; testu osoa kopiatzea, ordea, gaitza da; baina informazioa heltzeko eskaintzen dituen erraztasunak, programen bidez implementatzen direnak, horiek ezingo dira eskuratu. Eta informazio handiak bilatu eta konparatzeko erraz-

tasun horiek dira entzilopedia mota berri horien ekarpen nagusia. Grolier entzilopediaren egileei ez die ardua erabiltzaile batek definizio bat kopiatzeko ezta mila kopiatzeko ere, kopiatzaileak testu huts bezala erabiliko baldin badu bederen. Are gehiago, definizioak kopiatzeko aukera sistema saltzeko abantaila bezala aipatzen dute beren iragarkietan.


3) «... bestetik askoz ere arosoago eta errazago baita liburua zuzenean kontsultatzea, kontsulta hauek telefono bidez *on line* egitea baino. Merkeago eta lau aldiz lasterrago (Euskalterm-era deitzea aski da, frogaz egiteko)». Lehenengo eta behin, entzilopedia elektronikoa bat kontsultatzea ez du telefono beharrik, CD-ROM teknologia, a.b., eskura edukiz gero. Bistan da epe laburrean edozein etxerikotatik izango dugula horrelakorik. Beste kontu bat da urruneko datu-bankuak atzitu nahi izatea, adibidez EUSKALTERM kontsultatzea telefono bidez. Horrelakoetan guztiz ados gaude artikulua horretan esandakoaz, kontsulta sinpleez ari bagara eta hegoaldean egun daukagun azpiegitura telematikoa eskasa erabili behar bada. Hau da, Fisika Hiztegiaren hitz bakar bat, esate baterako «fuerza», nola esaten den jakin nahi badugu, eta bulegoan hiztegi hori edukiz gero, gaur eguneko askoz lehenago lor-

tuko dugu paperezko jor; baina itzulpen bat egiterakoan hamar kontzeptu ezezagun alde aurretik bildu baditugu eta guztiak bi edo hiru hiztegi desberdinetan bilatu nahi izanez gero (adibidez, Teknologia, Fisika eta Informatika, eta, askotan, zein hiztegitara jo garbi ez dagoela), bada... orduan lehenago bukatuko dugu EUSKALTERMera deituz. Gainera datu-base terminologiko hori beti egunean dago, hiztegiaren paperezko azken argitalpena (kasu batzuetan orain dela hamar urte egin) etengabe hobetuz.

4) «... Hizkuntza kontuetan informatikarekin liluratzen denak gutxi daki, seguraski, informatikaz edo hizkuntzaz. Edo bietaz». Begiak zabaldu baino ez da egin behar «Lengoaia Naturalaren Prozesamenduan» edo «Linguistika Konputazionalan» mugitzen diren merkatu-produktuak, proiektuak, kongresuak, laborategiak eta enpresak ikusteko. Merkatuan dauden produktuak ehundaka kontatzen dira, baina ehuneko 90 baino gehiago ingeleserako asmatu dira (orain-oraingoa ez bada ere, deskribapen zehatzagorik ikus daiteke "Informatika eta Hizkuntza" 16 orrialdeko eraskin berezian, Elhuyar Zientzia eta Teknika 18. zenbakia 1988ko Abendua). Kontua ez da, beraz, informatikarekin liluratzea ala ez, baizik eta ikustea informatikaren bidetik hizkuntzaren erabilerrakoa lagungarri izan daitekeen hainbat eta hainbat tresna garatzea posible dela. Eta ez hori bakarrik, zeren linguistika konputazionalaren ikerrarloan eskakizun den formalizazioa onuragarri gertatzen baita hizkuntzaren beraren ikerketa teorikorako.

Bukatzean esan behar dugu ikerkuntza arlo hau erronka erakargarria dela, orokorrean linguista eta informatikarientzat eta, konkretuki, euskara bezalako hizkuntza minorizatu batentzako laguntza teknikoak nondik nora aplikatu behar edo hala diren bilatzen dutenentzat. Talde interdisciplinarioak behar dira abentura honetan bakoitzaren ezjakintasunak eta hutsuneak elkarrekin betetzeko.

Hauek ere sinatzen dute: X. Arregi, X. Artola, I. Alegria, A. Diaz de Ilarraz, Nerea Ezeiza, K. Gojenola, J.M. Intxausti, M. Mari-talar eta E. Agirre, UPV-EHUko Informatika Fakultateko «Lengoaia Naturalaren Prozesamendua» ikerkuntza-taldea.



## PUNTO FINAL

Montxo GOIKOETXEA

### País

**E**L sábado se publicó en un periódico estatal un artículo titulado «El país de los cargos». ¿A qué país se referían? Pues para nuestra desdicha, al País Vasco. No a todo él, sino solamente a la CAV. El trabajo estaba fechado en Vitoria y el rotativo en cuestión lo incluía púdicamente en las páginas de «Ciudades», como para quitarle importancia. Pero la denuncia era de órdago. Si la hubiéramos hecho nosotros, enseguida nos hubieran acusado de demagogia y el ejecutivo de Gasteiz nos hubiera retirado las 20.000 pesetas de publicidad institucional que nos concedió en octubre.

Decía el periodista que «el alto cargo público, una especie todavía en crecimiento, con un sueldo medio de 8,1 millones de pesetas, va a ser sometido a revisión en el País Vasco». Pero daba a entender que todo se quedaría en palabras. El derroche es tal que «el propio conse-

jero de Sanidad reconoce que sobran altos cargos en el Gobierno vasco». Entre las diez consejerías del PNV y las cinco del PSOE acumulan 184, a los que hay que añadir otros 94 en las tres diputaciones. Esto equivale a un gasto de 2.253 millones, más otros 600 por el resto de personal de designación política: 186.

Y luego están los gastos propios del cargo: vehículo oficial, al que tienen derecho hasta los titulares de las secretarías, con chófer, escoltas y unos 300 seguros especiales. En la CAV hay 80.000 funcionarios, pese a lo cual se encargan cientos de informes a expertos de fuera del colectivo. Las pensiones merecen capítulo aparte: son vitalicias. «Con sólo dos años en el cargo, el lehendakari, vicepresidentes, consejeros y viceconsejeros tienen derecho a disfrutar, cuando cumplan los 65 años, de una pensión que será la mitad del sueldo que en ese momento cobren sus homólogos». Cita textual, para que no venga nadie a incordiar.